

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IGORREKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Igorreko Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Langileriari dagokion atalean HKEEk azpimarratu du 2007 eta 2008ko ekitaldietan lan poltsak sortzeko deialdiak Udalaren iragarki oholean eta udalerriko atarietan soilik plazaratu direla. Prozedura honek ez ditu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen.

Udalak elkarlehiaren sistema bidez kultur eta kirol jardueren garapena sustatu eta hedatzeko emandako diru-laguntzei dagokienez, onuradunei eman beharreko banakako zenbatekoak zehazterakoan ez dira oinarri-arauetan jasotako irizpideak gorde, balioeste-batzordeak ezarritako beste batzuk erabili baitira.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du zenbaitetan urratu egin direla administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: Obra kontratu baten exekuzioan zehar prestazio berriak txertatu zaizkio eta gastua % 99 garestitu dute; ordea, aldaketa horiek guztiak ez ditu kontratazio atalak onetsi. Honek lehiaketa printzipioak urratu ditu, igoeren zenbatekoak itxuraldatu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren kopuru ekonomikoa ere; halaber, 306 mila euroko zenbatekoarekin esleitutako zerbitzu kontratu baten lizitazioa ez da ez BOEn, ez DOUEn argitaratu; eta txostenean zehaztu diren hainbat gastu zatikapenetan ez da publizitate eta lehia printzipioa bete.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horren aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 578 mila euroan murriztu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2006-2008 aldian aurrezki garbi positiboa izan duela ondorioztatu da, EA Eren batez bestekoan dagoen inbertsioen programa finantzatzeko bide emango diona. Nolanahi dela ere, udalak ez du zorpetze maila handirik. Jada 2009ko ekitaldian aurrezki garbia ez da kapitalezko eragiketen emaitza finantzatzeko behar hainbatekoa izan eta horretarako, diruzaintza geldikina erabili behar izan du.